




## **Euskadiko gazteen % 11,5ek boluntarioria-ianak egiten dituzte Abenduak 5, Boluntarioen Nazioarteko Eguna**

2021eko maiatzean, Gazteen Euskal Behatokiak inkesta bat egin zien Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 2.495 gazteri. Inkesta horretan, gazteen % 11,5ek adierazi zuen une horretan boluntarioria-ianak egiten zituela, eta beste % 28,3k adierazi zuen ez zituela jada egiten, baina lehenago egin zituela; beraz, ondoriozta daiteke hamar gaztetik lauk (% 39,8) badutela esperientzia boluntariorian.

Boluntarioria egiten duten gazteen ehunekoa (bai gaur egun egiten duelako bai iraganean egiten zuelako) handitu egin da 2012. urtearekin alderatuta.


**Boluntarioria-ianak, bai gaur egun bai iraganean, egin dituztela dioten  
Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoen bilakaera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2020/2021)

Aztertutako unean (2021ean) boluntarioria-ianak egiten zituztela ziotenen datuei erreparatuz gero, ikus dezakegu 20 eta 24 urte bitarteko taldean ehunekoa zertxobait altuagoak zirela (% 14,9).


**2021ean boluntarioritza-lanak egiten dituztela dioten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2020/2021)

2021ean boluntarioritza-lanak egiten zituztenen artean, jardun-eremu nagusia haur eta gazteekin lotutakoa da; izan ere, une horretan boluntarioritza-lanak egiten zituztenen % 39,0k arlo horretan jarduten zuten. % 15,5ek zioen boluntarioritza-lanak egiten zituztela pobrezia desagerraraztearekin, garapenerako lankidetzarekin eta etorkinei edo errefuxiatuei laguntzarekin lotutako jardueretan. Beste arlo batzuetan boluntario-lanak egiten zituztenak ez ziren iristen % 10era.

**Proposatutako arlo bakoitzean boluntarioritza-lanak egiten dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, 2021ean boluntarioritzan aritzen diren gazte guztiekiko (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2020/2021)

Aurkeztutako datuak "[Euskadiko gazteak 2020/2021](#)" txostenean kontsulta daitezke, **politika eta parte-hartze sozialari buruzko 5. atalean**, hain zuzen ere. Gazteen Euskal Behatokiak egin du txosten hori, gazteei 2020an eta 2021ean egindako inkestetan oinarrituta.